



AKTA

2019ko urtarrilaren 31n Udal Batzarrak buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Alkatea eta gainontzeko hamar korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dituzte:

1.- Udal Batzarrak 2018ko abenduaren 20an buruturiko saioaren akta bere horretan onartu da aho batez.

2.- Plantila organikoa eta lanpostuen zerrendaren aldaketari buruzko alegazioaren erantzuna eta, behin betiko onarpena, hala badagokio.

M.L.Z.k aurkeztutako alegazioa gaitzestea eta 2018ko plantilla organikoa eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketa behin betiko onartzea, ondorengoa barne hartuz: Ingurumen Teknikari postu bat eta Gizarte Zerbitzuetako Administrazio Laguntzaile postu bat.

3.- 2019rako soldaten igoera. Eudelen proposamena.

EUDELe estatuko legedian oinarrituz 2019rako langile publikoen soldatari buruz gomendio batzuk bidali ditu. Hiru dira gomendioak:

- 2019-01-01tik aurrera %2,25eko soldaten igoera egitea.
- 2019-07-01-tik aurrerako igoera bat jasotzen da, 2018ko KPI-ren arabera.
- %0,3 edo %0,2ko igoera gehigarriaren aukera jasotzen da, produktibitate eta antzeko kontzeptuen hobekuntzarako planak martxan jartzeari lotuta.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideen aho bateko aldeko botoekin, honako erabakia hartu du: 2019-01-01tik aurrera %2,25eko soldaten igoera egitea.

4.- Zestoako Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa, Irao baserriaren inguruko lurzoru urbanizaezinari eta Sastarrain baserri eskolari dagoiona, testuaren onarpena.

Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideetatik saiora bertaratutako hamaika korporakideren aho bateko aldeko botoekin, erabaki hauek hartzen ditu:

Lehena.- Zestoako planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa dokumentua, Irao baserriaren inguruko lurzoru urbanizaezinari eta Sastarrain baserri eskola dagokiona onartzea.

Bigarrena.- Zestoako planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa dokumentua, Irao



ZESTOAKO UDALA

baserriaren inguruko lurzoru urbanizaezinari eta Sastarrain baserri eskola dagokiona, Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, behin betiko onespena eman dakion.

5.- Erregu eta galderak

M.A.k ondorengo gaia mahairatu du, 2019ko urtarrilean Zestoako Udalean jaso den sententzia, udalaren aurka aurkeztutako demanda baten ondorioz. Horren inguruan aritu dira hizketan, erabakirik hartu gabe.

Eta beste gairik ez dagoenez, 21:15ak direnean amaitutzat eman da Udal Batzarra.